



Arartekoaren 2023R-1527-22 Ebazpena, 2023ko martxoaren 27koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari gomendatzen dio atzera bota dezala kexagileari suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak emateagatiko tasa gisa igorritako likidazioa; izan ere, esku-hartze hori larrialdi-egoeran laguntzeko osasun-arretako zerbitzu baten barruan dago, eta SOS Deiak-112 zerbitzuak koordinatu zuen.

Aurrekariak

1. Kexagileak Arartekoak esku hartzeko eskatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak emateagatiko tasa bat kobratu ziolako, 49,12 euroko zenbatekoan, 2022ko apirilaren 17an SOS Deiak 112 izeneko zerbitzuak egindako esku-hartze baten harira.

Kexan adierazi zuenaren arabera, 2022ko apirilaren 17an lipotimia bat izan zuen Aranzelai bideko 10. zenbakian, Galdakaon, eta, horrez gain, honako hau azaldu zuen: *“el motivo del desmayo me fue explicado a posteriori por una infección no controlada y de la que no era consciente de que existiera, ni yo ni la médica que me había dado el alta el 03-04-2022, tras una operación quirúrgica (...) en el hospital de Usansolo-Galdakao. Por otro lado, el lugar de la actuación era y es una zona muy frecuentada para paseo habitual y próxima a la carretera con una zona de recreo urbanizada. El hecho de que una ambulancia no accediera hasta el mismo lugar, por acabar la carretera a unos cien metros, fue lo que motivó la actuación de los bomberos ese día que hacía buen tiempo. Para más abundamiento, jamás hubo ni tuve actitud negligente alguna, ni me puse en riesgo voluntario, de manera consciente e intencionada, ni tampoco llamé directamente a los bomberos, pues fue una llamada al 112 la que administró las acciones de ese día.”*

Kexagileak dioenez, likidazioa jakinarazi zitzaionean, berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen, eta, bertan, adierazi zuen familiak eskatutako esku-hartze bakarra osasun-arreta izan zela bat-batean sortutako larrialdi baten aurrean. Alabaina, azaldu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Zerga Kudeaketako Zerbitzuko buruak bere errekurtsua ezetsi zuen, kobratutako tasaren subjektu pasiboa izateko baldintza betetzen zuelako.

2. Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaile-zerbitzuaren parte-hartzeak izan zuen berezitasuna ikusita, Arartekoak Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailean azaldu zituen larrialdian zegoen herritar bati suhiltzaileen salbamendu-tasa likidatzeak sortzen zizkion zalantzak. Izan ere, suhiltzaileek esku hartu behar izan zuten osasun-taldeak ezin izan zirelako anbulantziarekin herritar hori zegoen tokiraino hurbildu, eta, gainera, laguntza horren eskaera SOS Deiak-112 Zerbitzuak



berak bideratu zuen, behar-beharrezkoa iruditzen zitzaielako une horretan herritar horrek behar zuen larrialdiko osasun-arretari ekin ahal izateko.

Errepikapenak saihesteko, argudio horiek gogoeten atalean jasoko dira. Nolanahi ere, aurreratze aldera, argudio horien artean defendatu zen Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak egindako garraioa osagarria izan zela eta larrialdi-zerbitzuen esku-hartzearekin erabat lotuta egon zela. Halaber, azaldu zen SOS Deiak-112 Zerbitzua izan zela administrazio arteko lankidetzara behar izan zuena eta eskatu zuena; izan ere, larrialdiko osasun-arreta EAEko Administrazio Orokorrari dagokio, gaixoa edo zauritua lurraldearen barruan edozein tokitan dagoela ere. Osasun-langileak toki horretan bertaratu beharko dira lurretik, airetik edota itsasotik, dagokien laguntzarekin zein laguntzarik gabe. Gainera, araudiak dio larrialdiko osasun-arreta hori unibertsala eta doakoa dela laguntza jasotzen duenarentzat, eta pertsona hori sorostea eta lekualdatzea ere doakoa izan beharko luke, betiere herritarren jarduera arduragabea eta arriskutsua izan ez bada edo arrisku gehigarrikerik eragin ez badu.

Hau da, osasun-larrialdietarako arretaren esparruan, administrazio arteko lankidetzara ez litzateke lotuta egon behar laguntza jasotzen duten pertsonen tasa bat kobratzearekin, betiere laguntza edo garraioa behar duen pertsona horri egotzi ahal zaizkion jarrera arriskutsu eta arduragaberen batek eragin ez badu.

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren erantzunean, suteak itzaltzeagatik eta salbamenduagatik igorritako tasa kobratzea egokia izan zela berretsi zuten; izan ere, zehaztu zuten garraioa ez zutela Eusko Jaurlaritzako erreskate- edota salbamendu-zerbitzuek egin, baizik eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak, eta, azaroaren 27ko 128/1990 Foru Dekretuan jasotakoaren arabera, zerbitzu hori emateak tasa bat ordaindu beharra dakar.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du: *“Honako hau tasa horren zerga-egitatea da: Bizkaiko Foru Aldundiko Suteak Itzaltzeko eta Salbamenduko Foru Zerbitzuak zerbitzuak eskaintzea suteen itzalketan, ezbeharretan eta pertsona eta ondasunen salbamenduan, subjektu pasibo denak zerbitzuok eskatu baditu edo ez, eta esku-hartzearen emaitza edo eraginkortasuna edozein delarik”*. Eta hauxe gaineratu du: *“Zerbitzua gauzaten denean sortzen da tasa, eta berdina dio nork eskatzen duen. Beraz, eta familiak osasun-laguntza soilik eskatu zuen arren, tasaren zerga-egitatea gertatu zen, zeren eta, adierazi dugun bezala, nahikoa da zerbitzua ematea, eta berdina dio nork eskatu zuen zerbitzua eta zein izan zen azken emaitza.”*





Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Ogasun Sailak hauxe adierazi du Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak osasun-larrialdiko egoeran esku-hartzeak izan dezakeen izaera instrumental edota asistentzialaren aurka: *“Kontua ez da zehaztea zein den jarduera nagusia eta zein osagarria, zeren hori kasu bakoitzeko egoera espezifikoaren arabera izango bailitzateke, baizik eta osasun-arreta bereiztea (doakoa eta unibertsala) eman diratekeen beste zerbitzu batzuetatik (aldi berean osasun-arreta egonda edo ez), zeinak ez baitaude doako gisa definituta; aldiz tasa bat kobratzen da haiek emategatik.”*

Halaber, emandako erantzunean adierazi da administrazio arteko lankidetzak modu efizientean funtzionatu duela. Zehazki honako hau baieztatu da: *“Aztergai dugun kasu konkretuan, 112 zerbitzuak beharrezkotzat jo zituen baliabideak mobilizatu zituen, besteak beste, Suteak itzaltzeko Zerbitzuaren esku-hartzea. 13:42:11n deitu zen 112 telefonora, eta, agintean zeudenei zegozkien abisuak egin ondoren, 13:45:02an abiatu zen lehen baliabidea (ibilgailu arina); hiru minutu geroago, beste ibilgailu bat irten zen. Lehen ibilgailua 13:56:02an iritsi zen istripuaren lekura, eta 14:36:39an amaitutzat eman zuten esku-hartzea.*

Ezinbestekoa da bereiztea, batetik, larrialdi bati erantzuteko behar den lankidetzaz (kasu horretan frogatu da eraginkorra izan zela) eta, bestetik, larrialdia konpontzeko esku hartzen duten zerbitzuak doakoak izatea ala ez. Azken kontu hori zerbitzu bakoitzari aplikagarri zaion araudian ezarritakoak ebatziko du.”

Azkenik, likidatutako zenbatekoei dagokienez, txostenak ekainaren 26ko 102/2007 Foru Dekretuan jasotakoa aipatzen du, zehaztasun askorik gabe. Dekretu horren bidez, ordaindu beharreko tarifak zehazten dituen azaroaren 27ko 128/1990 Foru Dekretua aldatu zen.

Erantzunarekin batera, Sail horrek istripuaren harira Uriosteko Suhiltzaile Parkeak egindako txostenaren kopia eta igorritako zerga-kotaren banakatzea bidali ditu. Hala, txostenak honako hau dio: *“el aviso se recibe desde SOS DEIAK-112, con solicitud por parte del BZ (técnico de SOS DEIAK) de movilización de bomberos”*; eta, gainera, honako hau zehazten du: *“Siguiendo los procedimientos y tácticas implantadas en este servicio para este tipo de siniestros se procede a trasladar a la persona mediante camilla nido y tablero espinal hasta la ambulancia”*. Halaber, txosten horrek honako hau adierazten du: *“Otras agencias en el lugar: Ertzaintza, Policía Local y Sanitarios.”*





Fakturatutako banakatzea honela adierazi da:

<i>"Epigrafea</i>	<i>kontzeptua</i>	<i>unitateak</i>	<i>kostu unitarioa</i>	<i>kostua</i>
<i>Ibilgailuak</i>	<i>Buruzagitza eta agintaritza unitatea</i>	<i>1,056861111</i>	<i>22,98431975</i>	<i>24,29</i>
<i>Ibilgailuak</i>	<i>Materialak eta pertsonak garraiatzea</i>	<i>1,080361111</i>	<i>22,98431975</i>	<i>24,83</i>
<i>Guztira</i>				<i>49,12"</i>

Gogoetak

1. Kexa honetan sortu den eztabaida honako hau da: zehaztea Bizkaiko Foru Aldundiaren Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren esku-hartzea kexagileak ordaindu behar duen ala ez. Horrek, Arartekoaren iritziz, ezinbestean behartzen gaitu foru-zerbitzu horrek egindako esku-hartze zehatza kontuan hartzera, zehazteko ea larrialdi-egoeran emandako osasun-arretarekiko autonomia eta independentea izan zen, edo, aitzitik, esku-hartze hori osasun-larrialdiko egoera batean arreta emateko emandako laguntzatik bereizezina den.
2. Larrialdi-egoeratako arreta ulertzeko, abiapuntutzat hartu behar dugu Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak Espainiako biztanleria osora zabaltzen duela osasun-laguntza, ageri-agerian izaera unibertsalekoa eta doakoa.

Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komun en zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituenak, IV. eranskinean arautzen du larrialdiko arreta egiteko zerbitzu komun en zorroa, eta hauxe dio: *"La atención de urgencia es aquella que se presta al paciente en los casos en que su situación clínica obliga a una atención sanitaria inmediata. Se dispensará tanto en centros sanitarios como fuera de ellos, incluyendo el domicilio del paciente y la atención in situ, durante las 24 horas del día, mediante la atención médica y de enfermería, y con la colaboración de otros profesionales."*

Eranskin horrek, lehenengo atalean, honako hau zehazten du, larrialdietako arreta eskuratzeari dagokionez: *"El procedimiento y el modelo organizativo para la atención de urgencia serán establecidos por las administraciones sanitarias competentes, de manera que el acceso a la prestación se realice en el tiempo y lugar adecuados para facilitar una atención adaptada a las necesidades de cada paciente. La atención de urgencia se entiende como una atención integral y continua que se presta por atención primaria y especializada, y por los servicios específicamente dedicados a la atención urgente."*



La coordinación de los diferentes intervinientes en la atención de urgencia se realizará, a través de los teléfonos 112, 061 u otros, por los centros coordinadores de urgencias y emergencias sanitarias, que garantizarán, las 24 horas, la accesibilidad y la coordinación de los recursos disponibles para este tipo de atención.”

Eranskin horrek, 2. atalean, larrialdiko arreta egiteko zerbitzu komunen zorroa zehazten du, eta, besteak beste, hauexek biltzen dituela aitortzen du:

“2.2 La evaluación inicial e inmediata de los pacientes para determinar los riesgos para su salud y su vida (...)

2.5 El transporte sanitario, terrestre, aéreo o marítimo, asistido o no asistido, según lo requiera la situación clínica de los pacientes, en los casos en que sea preciso para su adecuado traslado al centro sanitario que pueda atender de forma óptima la situación de urgencia.”

EAEn, ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, 3. artikuluan zehazten ditu euskal administrazio sanitarioari dagozkion jarduketak, eta honela dio: *“Herritarren osasun-babesarekiko eskubidea aitortzeak euskal aginte publikoei zenbait betebeharrak ezarri dizkie; betebeharrak horiek direla-eta, Euskal Administrazio Sanitarioari dagokio osasun publikoaren tutela orokorra garantizatzea, prebentziorako, osasuna sustatzeko neurrien bidez eta prestazio sanitario indibidualen bidez. Halaber, haren zeregina izango da baliabide-dispositibo egokia garantizatzea, hots, izaera publikoak ziurtatutako prestazioak emateko baliabide-dispositibo egokia garantizatzea, batez ere titularitate publikoko baliabideen dotazio, mantenimendu eta antolamendu-hobekuntzaren bidez.”*

Arestian esan bezala, izaera publikoarekin ziurtatuta dagoen eta Osasun Sailak eman behar duen banakako prestazio bat premiazko arreta da, eta hala zehazten du Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuak, zeinaren printzipioak arau horren 2. artikuluan bilduta baitaude. Hauxe ezartzen du: ***“Larrialdiak kudeatzeko sistema integratu eta bateragarri bat une oro erabilgarri egongo dela bermatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiek, lege honen helburuak betetzeko eta bakoitzak bere eskumenen eremuan. Horretarako, koordinazioaren, lankidetzaren, elkartasunaren eta erakundeen arteko leialtasunaren printzipioak hartzen dituzte aintzat haien arteko harremanetan, bitarteko eta baliabide mugigarrien osagarritasun eta subsidiarotasunaren arabera egokitzen dituzte haien jarduketak eta integragarritasunari, gaitasunari eta egokitasunari begiratzen diote planak aplikatzerakoan.”***





Kontuan izan behar da printzipio horiek larrialdi guztien kudeaketa informatzen eta antolatzen dutela, besteak beste, hondamenak ez diren larrialdiak (37. art.). Arrisku larririk, hondamen publikorik ez duten istripuek edo bestelako gertaerek eragindako larrialdietan pertsonak eta ondasunak babestera eta sorostera zuzendurikoak dira. Horri dagokionez, 37. artikulua 2. paragrafoak hauxe zehazten du: *“Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena duen sailari dagokio lankidetzaren eta koordinazio egokia ziurtatzea kapitulu honetan jasotako larrialdietan esku hartzen duten zerbitzuen artean. Lankidetzaren eta koordinazio hori funtsean Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren bidez gauzatzen da, oinarrizko tresna gisa taktika operatiboak erabiliz, baina betiere kalterik egin gabe administrazio bakoitzak bere zerbitzu propioen barne-koordinaziorako dauzkan zentroei.”*

Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren zereginetako bat larrialdi-deien arreta-zerbitzua ematea da, 1-1-2 telefono-zenbaki bakarraren bidez.

Azkenik, adierazi behar da, hondamenak ez diren larrialdiak kudeatzeko sistemaren oinarri diren printzipioekin bat etorritik, zerbitzuok doakoak direla arreta behar duen pertsonarentzat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoari buruzko Legea aldatzen duen irailaren 29ko 3/2006 Legearen 111 bis artikuluan aipaturiko kasuan izan ezik. Hala denean, bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-tasa ezartzen da.

Arau horrek, tasaren zergapeko egitatea definitzean, hauxe dio:

“1. Tasa honen zergapeko egitatea da Herrizaingo Sailaren berezko eta hitzartutako koordinazio eta esku-hartze taldeek, segurtasun publikoko arrazoiengatik, egoera zailean dauden pertsonak bilatu, salbatu edo erreskatatzeko zerbitzua ematea, ofizioz edo aldeak eskatuta, betiere zerbitzua ematea subjektu pasibotzat jotzen denaren onerako bada eta kasu hauetan gertatzen bada:

a. Bilaketa- erreskate- edo salbamendu-lanak pertsonentzat arriskutsu diren jolas- edo kirol-jarduerak egitearen ondorio direnean.

Tasa hau aplikatzeari dagokionez, honako hauek joko dira pertsonentzat arriskutsu diren jolas- eta kirol-jarduerentzat, modalitate eta estilo guztietan: urpekaritza, igeriketa-zeharkaldiak, windsurfing, flysurfa, uretako eskia, wakeboarda, wakesurfa, skurferra, uretako motoak, bodyboarda, surfa, rafting, hydrospeeda, piraguismoa, arraunketa, arroilen eta troken jaitsiera, zubi-saltoa, goma-saltoa, kite buggy, quadak, eskalada, kirol-espeleologia edo espeleismoa, mendiko bizikleta babes-kaskorik gabe, moto-krosa, mendiko motordun ibilgailuak, raid eta trec diziplinetako hipika, zaldizko turismo eta ibilaldiak, eskia, snowboarda, elurretako motoak, paraskia, snowbikea, mushinga, skibikea, aerostazioa, parakaidismoa, base-jauzia, hegaldiak ultrarinetan, hegaldiak motordun eta motorrik gabeko aparatuetan, parapentea, delta hegala eta parasailinga.



Erregelamendu bidez, pertsonentzat arriskutsu diren bestelako jolas- eta kirol-jarduera arriskutsuak ere ezarri ahal izango dira.

b. Bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-lanak arrisku-seinalea jarrita dagoen lekuetan edo sarbidea mugatuta edo debekatuta dutenetan egiten direnean.

c. Bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-lanak aurkako fenomeno meteorologikoen ondoriozko alerta laranja edo gorria dagoela egiten direnean, jarduera batzuk arriskutsuago bihur ditzakeen aurkako meteorologia horretaz herritarrek abisatuta daudelarik.

d. Zerbitzua objektiboki justifikatutako arrazoirik gabe eskatzen denean edo arriskua dagoelako itxurak egiten direnean.

2. Ez da pertsonen bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-zerbitzuak emateagatiko tasarik ordaindu behar izango katastrofe edo hondamendi publikoko egoeretan, edota zerbitzu horiek interes orokorreko arrazoiengatik, eta ez partikularren edo ondasun jakinen mesedetan, ematen direnean.

Era berean, ez da tasa ordaindu beharrik izango itsasoan pertsonak salbatzeagatik edo itsasontziak erreskatatzeagatik, legedi espezifikoan eta nazioarteko hitzarmenetan aurreikusita dauden kasuetan."

Osasun-esparruko araudia ikusita, eta herritarrek behar dutenean larrialdiko osasun-arreta dohainik jasotzeko eta euskal administrazio publiko guztiek dituzten baliabideak modu koordinatuan mobilizatzeko duten eskubidea ikusita, Arartekoaren ustez, indarrean dagoen legeriari hobeto egokitzen zaio administrazio arteko zerbitzu osagarri horiek Bizkaiko Foru Aldundiko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baliabideen arteko administrazio arteko lankidetzaren esparruan kokatzea, lazeria ez den osasun-larrialdi bati azkar erantzun ahal izateko, eta, beraz, osasun-larrialdia da benetan emandako esku-hartze bakarra, eta mobilizatutako gainerako baliabideen jarduketa larrialdiko osasun-arreta horren osagarria eta subsidiarioa da. Hau da, SOS Deiak-112 Zerbitzuak koordinatutako jarduketaren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak jarritako baliabideak tresna bat baino ez dira premiazko arreta-zerbitzu bat ematea bermatu ahal izateko; izan ere, Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak egoera hori artatzea beharrezkotzat jo zuen, eta, horretarako, erabaki zuen anbulantzia bat eta medikuak zein erizainak eramatea larrialdiaren tokira.

Hau da, erakunde honen iritziz, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak emandako zerbitzu zehatza larrialdi-zerbitzuekin lankidetzan aritzeko beharrezko esku-hartzea izan zen. Gure ustez, bertaratu ziren larrialdietako mediku-taldeein laguntzeko izaera



asistentzial eta instrumental hori indartu egingo litzateke, gainera, SOS Deiak-112 Zerbitzuak berariaz eskatu zuelako Bizkaiko Foru Aldundiaren Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren presentzia, hain zuzen ere bertaratutako osasun-zerbitzuek ez zutelako baliabide nahikorik une horretan premiazko osasun-arreta behar zuen herritarra zegoen lekura iristeko.

Azaldu den bezala, laguntza behar izan zuena, lekua osasun-ibilgailuentzat irisgarria ez zelako, SOS Deiak-112 Zerbitzua bera izan zen. Laguntza hori eskatu zuten premiazko egoera batean arreta behar zuen pertsona bati laguntzeko.

Larrialdiko osasun-arreta EAEko Administrazio Orokorrari dagokio, gaixoa edo zauritua lurraldearen edozein tokitan dagoela ere. Osasun-langileak toki horretan bertaratu behar dira lurretik, airetik edota itsasotik, dagokien laguntzarekin zein laguntzarik gabe; gainera, araudiak arreta hori unibertsala eta doakoa dela dio laguntza jasotzen duenarentzat, betiere herritarren jarduera arduragabea eta arriskutsua izan ez bada edo arrisku gehigarrikerik eragin ez badu.

Ondorioz, Arartekoaren iritziz, administrazio arteko lankidetzara, osasun-larrialdien arretaren esparruan, ez litzateke tasa kobratzearen mende egon beharko, eta, beraz, ezin izango liriteke aldatu herritar bati osasun-larrialdi baten esparruan emandako esku-hartze osagarri baten kostuak, baldin eta erreskate hori ez badator bat laguntza behar duen herritarrek alde aurretik egindako jarduera bati lotutako arrisku- eta arduragabekeria-parametro gehigarri batzuekin.

Arartekoak azaldu behar du ez dela arrazoizkoa, ezta onargarria ere, larrialdi-zerbitzuak artatutako pertsonaren egoera aldatzea, haren borondateetik guztiz kanpo dagoen faktore baten arabera, hau da, SOS Deiak-112 Zerbitzuak kasu bakoitzean mobilizatu behar dituen baliabideen titulartasunaren edo jatorriaren arabera. Erakunde honek ezin du egokitzat eta zuzentzat jo erreskatea doakoa izatea laguntza jasotzen duenarentzat, baldin eta EAEko Administrazio Orokorrak berak ematen baditu baliabideak, baina laguntza jasotzen duen pertsonak berak tasa bat ordaindu behar badu, erreskatean esku hartu duten langileak Bizkaiko Foru Aldundiak jarri dituenean.

Adierazi den bezala, Arartekoak uste du Uriosteko Suhiltzaile Parkeko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren esku-hartzea lagungarria eta beharrezkoa izan zela uneoro larrialdi-egoera batean zerbitzu bat eta osasun-laguntza bat emateko. Beraz, benetakoa onuraduna ez zen izan arreta jaso zuen herritarra.

Baldin eta larrialdi-zerbitzua emateko administrazioen arteko lankidetzara egituratzeko, halaber, beharrezkoa bada finantzaketa-kostuetan ekarpenak zehaztea, esku hartzen duten administrazioei dagokie egokitzat jotzen diren

lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea. Hitzarmen horietan, gai horiek zehaztuko dira, alderdi sinatzaileentzat komenigarrientzat jotzen den bezala.

Nolanahi ere, esan daiteke Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasei, Prezio Publikoei eta Bestelako Zerga Baliabideei buruzko 4/1990 Foru Arauak berak onartzen duela, 20. artikuluan, zerga-onurak ezartzea Bizkaiko Lurralde Historikoaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Estatuaren eta gainerako lurraldeko edo erakundeetako erakunde publikoen alde, edo nazioarteko itun edo akordioetan ezarritakoaren ondorioz.

Era berean, egokia dirudi azaroaren 27ko 128/1990 Foru Dekretuaren testuan bertan argitzea (suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak emateko tasa aplikatzea eta arautzea erabakitzen du), ez direla tasaren mende egongo beste zerbitzu batzuekin lankidetzan emandako salbamendu-zerbitzuak, lazeriak ez diren larrialdiei aurre egiteko.

3. Azkenik, txostenak adierazten du erreklamatutako zenbatekoak ekainaren 26ko 102/2007 Foru Dekretuan araututa daudela. Dekretu horren bidez, azaroaren 27ko 128/1990 Foru Dekretua aldatu zen, suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak emateagatiko tasa aplikatu eta garatzea erabaki zuena, eta 2007ko uztailaren 6ko BAOan argitaratu zena.

Foru Dekretu horren artikulua bakarrak suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak emateagatiko tasaren elementu kuantitatiboak heltzen die, eta honako hau zehazten du:

Tasa hau honako tarifa hauen arabera exijituko da:

1. Esku-hartzeetan erabilitako materiala:

<i>Materiala</i>	<i>Irteera</i>	<i>Zerbitzu-ordua</i>
<i>Eskala eta beso giltzatua</i>	50	5
<i>Autoponpa astuna</i>	40	4
<i>Autoponpa arina</i>	40	4
<i>Ponpa ama astuna</i>	40	4
<i>Ponpa ama arina</i>	40	4
<i>Salbamendurako furgoia</i>	40	4
<i>Garabi-ibilgailua</i>	40	4
<i>Ibigailu arina</i>	30	3
<i>Salbamendurako txalupa</i>	20	2
<i>Motoponpa astuna</i>	20	2
<i>Motobomba pesada</i>	20	2
<i>Electroponpak</i>	20	2



Artikuluaren gainerako epigrafeek tasen kuantifikazioaren beste alderdi batzuk aipatzen dituzte, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak 2022ko apirilaren 17an emandako esku-hartze zehatzarekin itxuraz zerikusirik ez dutenak.

Hona hemen esku-hartze horren likidazioaren banakatzea:

<i>"Epigrafea</i>	<i>kontzeptua</i>	<i>unitateak</i>	<i>kostu unitarioa</i>	<i>kostua</i>
<i>lbigailuak</i>	<i>Buruzagitza eta agintaritza unitatea</i>	<i>1,056861111</i>	<i>22,98431975</i>	<i>24,29</i>
<i>lbigailuak</i>	<i>Materialak eta pertsonak garraiatzea</i>	<i>1,080361111</i>	<i>22,98431975</i>	<i>24,83</i>
<i>Guztira</i>				<i>49,12"</i>

Kobratzeko bidalitako tarifaren konfigurazioak ez dirudi bat datorrenik ekainaren 26ko 102/2007 Foru Dekretuan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2007ko uztailaren 6an) jasotako tasaren elementu kuantitatiboekin. Hori berretsiz gero, talka egingo luke eta, besteak beste, zerga-arloko legezketasun-printzipioa eta arauen publikotasun-printzipioa urratuko lituzke, igorritako likidazio zehatza erabat deusez bihurtuz, ez bailuke beharrezko arau-babesik izango.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak atzera bota dezala kexagileari suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak emateagatiko tasa gisa igorritako likidazioa; izan ere, esku-hartze hori larrialdi-egoeran laguntzeko osasun-arretako zerbitzu baten barruan dago, eta SOS Deiak-112 zerbitzuak koordinatu zuen.

Halaber, sail horrek suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak emateagatiko tasaren araudia aldatu beharko luke, argitze aldera. Horretarako, berriaz jaso beharko luke larrialdi-zerbitzuei arreta emateko administrazio arteko lankidetzaren tasa hori ordainaraztearen mende ez dagoen kasu bat dela.